

II. ERANSKINA

OINARRIAK

2026/2027 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO BI ORDUKO LIBERAZIOEN DEIALDIA

1.- Xedea

Deialdi honen xedea 2 orduko euskara ikastaroetan parte hartzea da, modalitate presentzial hauetakoren batean: **lanorduetan** edo **lanorduetatik kanpo**. Eta baita **autoikaskuntzako** ikastaroetan.

2.- Ordu kreditu sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez IVA Pek eta UPV/EHUk sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri** da (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua). Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturtean. Horrela, ordu kreditu negatiboa dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2026/2027 ikasturterako.

3.- Baldintzak

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

- **UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetaiko langilea** izatea (karrerako funtzionarioak, lan kontratu mugagabea duen langileak, bitarteko funtzionarioak, aldi baterako lan kontratua duten langileak, lanpostu hutsean zein ordezkioan egon).
- Lanorduetan bi orduko ikastaroa egiteko, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edo baliokidea den agiririk ez izatea.

4.- Liberazioen gehiengo kopurua eta irizpideak lehentasun mailaren arabera

4.1. Liberazioen kopurua:

- **Lanorduetako** ikastaroak: **ez dago mugarik**.
- **Lanorduz kanpoko** ikastaroak: **ez dago mugarik**.
- **Autoikaskuntzako** ikastaroak: IVA Pek eskaeren **kopuru mugatua** onartuko du.
 - Autoikaskuntzarako erakunde bakoitzak lanorduz kanpo bideratzen dituen eskaeren % 30 onartuko ditu.
 - Autoikaskuntzan ez da eskola uzterik onartuko. Behin ikastaroa hasita, ikastaroaren ordu kopuru osoa (190 ordu) kenduko zaio ikasleari bere ordu kreditutik.

4.2.- Unitate bakoitzaren % 50 gutxienez ziurtatuta geratu behar da.

4.3.- Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehentasunaren arabera antolatutakoak: lanpostuaren **derrigortasun data** (gaindituta, gainditzeke, data gabekoa), lanpostuaren unitate mota (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen **lan harremana** (karrerako funtzionarioak, lan kontratu mugagabea duten langileak, bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsetan, egonkorak edo lehentasunezko poltsakoak eta aldi baterako lan kontratua duten langileak lanpostu hutsetan edo egonkorretan). Lehentasun honi jarraituko zaio:

- Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta karrerako funtzionarioak edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsetan edota aldi baterako lan kontratua duten langileak direnean.
- Derrigortasun data oraindik gabe duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta karrerako funtzionarioa edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data oraindik gabe duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsetan edota aldi baterako lan kontratua duten langileak direnean.
- Derrigortasun datarik ez duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta karrerako funtzionarioak edo lan kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data ez duten langileak, unitateen sailkapenari jarraituz eta bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsetan edota aldi baterako lan kontratua duten langileak.
- Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, eta honako irizpideen arabera:
 - a. Euskara ikasi izana 2024/2025 edo 2025/2026 ikasturtean (lehentasuna dute 2025/2026 ikasturtekoek 2024/2025eko aurretik)
 - b. Gainditutako euskara maila (lehentasuna mailarik handienak du)
 - c. UPV/EHUn lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila gainontzeko langileentzat ere kontuan hartuko da.

Oharra: ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko erreferentziatzat hartu behar den derrigortasuna eskatzailea titular den lanpostua da (funtzionarioa edo bitarteko funtzionarioa), eta ez aldi baterako betetzen duena (zerbitzu betekizunak, etab.).

5.- Eskaerak

Eskaera urte osorako egin beharko da. Hau da, **otsailerako deialdian ez da 2 orduko eskaera berririk onartuko**. Modulu aldaketak hartuko dira kontuan bakarrik, hau da, liberatuta dauden eta bi ordukoetara aldatu nahi duten pertsonak, edo alderantziz.

Oharra: langileak plaza hutsik betetzen ez badu, ordezkapenak egiten baditu eta lanpostuz aldatzen badute bi orduko liberazioa duen bitartean (lanorduen barruan), nagusi berriari jakinarazi beharko dio, nagusi berriak ez baitauka zertan liberazioaren berri izan. Nagusiak eragozpenik badauka liberazioarekin jarraitzeko, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzarekin jarri beharko da harremanetan jarri eta idatziz azaldu behar du zein diren baimena ukatzeko arrazoiak. Idatzi hori kontuan hartuta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza izango da azken erabakia hartuko duena.

5.1.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak

- Ikastaro bakoitzeko eskari bana bete beharko da: laneko ordutegia, lanorduz kanpoa eta, autoikaskuntza.
- Langileek 2026ko martxoa baino lehen gaitutako azken ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baldin eta euskara bere kabuz ikasi badute eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza ez badaukate bere euskara mailaren berririk.
- Ordutegi bereziak direla eta, euskara lanorduz kanpo ikastera behartuta dauden guztiek, 2 ordu eta erdiko lan murrizketa eskuratzeko (onartuak izatekotan), eskaeran *"Lanorduetan"* jarri behar dute.
- Aldi baterako kontratua duten langileek eskariarekin batera lan kontratuaren kopia bidali beharko dute. **Halaber, egiaztatu beharko dute gutxienez 2026ko abenduaren 31ra arteko lan kontratua dutela.**

5.2.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea **apirilaren 15etik 30era** izango da (biak barne). Ez da epea kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

Oharra: eskaerak egiteko azken eguna iristean langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaera bera, sinatu gabe, epe barruan bete beharko du eta azaldu beharko du zergatik ez duen nagusiaren baimenik lortu.

Oharra: nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azaltzeko. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko**. Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 10 laneguneko epean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak 5 orduko liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik zenbatzen hasita. Epe hori erreklamazioak aurkezteko epearekin batera abiaraziko da (**maiatzak 16-24**) eta **txostena helbide honetara bidali beharko da:** euskara-plangintza@ehu.eus.

5.3.- Eskaerak non eta nola aurkeztu

Eskaerak aurkezteko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia bete beharko da, modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/tekazelen-hizkuntza-prestakuntza/2026-2027-ikasturtea-euskara-ikasteko-2-5-orduko-liberazioen-deialdia>. Eskaera bakoitzeko inprimakia bana bete behar da.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUn erregistro elektronikoan erregistratuko da: https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/catalogo/registro_electronico?lang=eu. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUn txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Ziguilaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUREKIKO harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak

6.1.- Klaseen egutegia eta egindako hutsak justifikatzea

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPEk jartzen duen egutegia onartu behar dute. IVAPEko talde bateko kide ez diren kasuetan, dagokion euskaltegiaren egutegiari jarraituko diote. Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira justifikatu. Gogorarazten zaie ikasle guztiei huts egite guztiak justifikatu behar dituztela Euskara y Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan, posta arruntez edo elektronikoz jakinarazita. Ikaslea ez bada joan euskara eskoletara laneko arrazoiak direla-eta, interesdunak idazkia bidali beharko dio Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari, arrazoiak azalduz eta bere nagusiaren oniritziarekin.

Huts egiteak justifikatzen ez badira, langilea liberazioetatik kanpo utziko du Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak.

6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga

Liberazioa jasotzen duten langileek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara (IVAP) aurkeztu beharra izango dute, betiere ondoren aipatutako euskalduntze mailak egiten ari badira:

- **B1B1 hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, **A2B1** edo **B1B1** mailak egitea.
- **B2B2 hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, **B1B2** edo **B2B2** mailak egitea.

Hala ere, bi maila horietakoren bat egiten ari diren eta oraindik B1B1 maila egiaztatuta ez duten langileek B1B1 mailako frogetara aurkeztu edo zuzenean B2B2 maila egiaztatzeko frogara aurkeztu ahal izango dute.

- **C1C1 hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, euskalduntzeko **B2C1** edo **C1C1** maila egitea.

Hala ere, B2B2 (egiaztatu gabea) hizkuntza eskakizuna duen lanpostu batean dauden eta euskalduntzeko B2C1 maila egiten ari diren langileak B2B2 egiaztatzeko probetara aurkeztuko dira. Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Bi orduko liberazioa duen langileren batek bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna lortuz gero, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak liberazioa kenduko dio, betiere, IVAPe hutsune hori betetzeko aukera badu. Dena dela, langileak euskara ikasten jarraitu ahal izango du lanorduetatik kanpo. IVAPe ezinezkoa badu hutsune hori betetzea, **langileak lanorduetan euskara ikasten jarraitu ahal izango du ikastaroa bukatu arte**, baina horretarako, **nagusiaren oniritzia beharko du**.

Oharra: Erreferentzia-profila B2B2 izango da, B1B1 eskatzen zaien langileentzat.

7.- Lanorduetatik kanpoko ikastaroak

7.1.- Euskara ikastaroak lanorduetatik kanpo egiten dituzten langileei lanaldia, ordutegia, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularrean jasotako aplikatuko zaie. Dena den, sor litezkeen kasu edo egoera berezi guztiak Euskalduntze Batzordeak aztertuko ditu.

7.2.- Autoikaskuntza ikastaroak egiteko aukera dago, "**Deialdi guztietarako arauak**" eranskineko matrikula-kodeei buruzko arauen puntuan ezarritako baldintzen arabera.

8.- Onartuen zerrendak

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira ehutaletan eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian:

<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/tekazelen-hizkuntza-prestakuntza/2026-2027-ikasturtea-euskara-ikasteko-2-5-orduko-liberazioen-deialdia>

Behin-behineko zerrendak maiatzaren 15ean argitaratuko dira, eta interesdunek **maiatzaren 16tik 24ra** izango dute **erreklamazioak aurkezteko epea**. Erreklamazioak deialdi honetako 5.3 puntuan azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira, eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian eskuragarri dagoen hutsak zuzentzeko, dokumentazioa gehitzeko eta erreklamazioak egiteko inprimakia aurkeztu beharko du.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta guztiak aztertu ondoren, **behin betiko** zerrendak **ekainaren 3tik aurrera** argitaratuko dira lehen aipatutako web orrian tauletan, Euskalduntze Batzordea bildu ondoren.